Praktikoa den eta partaideek beraien lan tresnak sortu ahal dituzten formakuntza programa martxan jartzea proposatzen da. Iraupen ez oso luzeko eta eduki oso zehatz eta praktikoa duten Formakuntza Pilulen bitartez formakuntza programa diseinatzea pentsatu da. Adibideak:

- Sare sozialak; zure publikazioen egutegia diseinatu.
- Instagram: Nola saldu gehiago
- YouTube: Sortu zure kanala eta bideoak partekatu
- Argazkiak editatu eta bisualak hobetu
- Bideo errazen egituraketa
- Merkataritza datuen kudeaketa


2.1.2. Ekintza - Merkataritza Enpresaren Eraldaketa digitalaren tutoretzak

2.1.1. ekintzan proposatutako Pilulez gain, komertzioek eraldaketa digital prozesuan laguntzen dieten adituak behar dituzte. Diagnosi Azkar Saioak+ diagnosira lotutako hobekuntza prozesuen lantzerako laguntza/Tutoretza bitartez, mikroenpresa errealitatera egokituta ko aholkularitza egokitua eta erraza proposatzen da.

• 2.2 Lerroa: Merkataritzan Bezeroaren esperientziaren diseinua

2.2.1. Ekintza - Bezeroen Esperientzia Maparen diseinuan laguntza

Komertzioek beraien bezeroei gehienezko balioa eman behar diete, eta balio hau elementu objetibo eta subjektiboz osatzen da, Komertzioarekin bizi izan duten esperientzian zehar izandako emozioetan oinarrituta. Horregatik, beharrezkoa da bezeroak berak izandako hautematea eta alderdiak kontuan izatea esperientzia diseinatzean. Horretarako, Bezeroaren Esperientzia maparen tresna proposatzen da. Kontsumitzaileek komertzioarekin harremana izatean egiten dituzten pausu eta faseak erakusten dituen diagrama da, pozik edo zapuztuta sentitzen den puntuak ulertzen laguntzen duen, prozesu eta harreman puntuak identifikatzen ditu.



Komertzioentzako esperientzia Mapeo hau, 2 ataletan garatu daiteke:

- "Bezeroaren Esperientzia Mapa" Tailerra.
- Komertzio bakoitzarekin banakako saioa

2.2.2. Ekintza - Altzariak

Bezeroen esperientziaren diseinuan landu beharreko lerroetako bat, Hernaniko bizilagunentzat eremu adeitsuen diseinua da. Ideia hau indartzeko, bezeroekin harremana sortzeko helburuarekin, bezeroen egonaldiaren alde egiten duten elementuez doitzea eta balio zko zerbitzua eskaintzea proposatzen da. Bezeroek, dendak dirua xahutzeko enpresak baino zerbait gehiago bezala hautematea lortu nahi da.

Adibideak: besaulkiak, sofak, mahaia, poltsa zaitza, WIFI sarbidea, mugikorren kargagailua, komunera pasatzen uztea…

2.3 Lerroa: Entrenamendu exekutiboa

2.3.1. Ekintza - Entrenamendu exekutiboa

Merkatal enpresa askok, beraien merkataritza establezimenduaren kudeaketan aldaketak egiteko beharra ikusten dute, baina aldaketaren tamainaren, helburuen finantzaketaren, eta martxan jartzen lagun diezaieketen prozesuaren aurrean zailtasunekin aurkitzen dira. Garapen exekutiboak, baliabide eta gaitasun propioak erabiliz zehaztutako helburuak lortzeko modu eraginkorrena aurkitzeko prozesua eskaintzen du.

Entrenamendu hau 3 fasetan garatuko da:

- Motibazio tailerrak
- Talde saioak (2.6. Elkartearen berrindartze ekintzarekin lerroan)
- Banakako saioak

2.4 Lerroa: Merkataritzaren sentsibilizazio eta balioan jartzea

2.4.1. Ekintza - Role Play (Rol jolasak)

Eskoletan, hezkuntza zentrotan, gaztelekuetan… Role Play dinamikak egitea proposatzen da. Talde dinamika hauek, hurbileko komertzioen egoerarekin sentsibilizatzen, beraien azalean jartzen, eta esperientziak beraiek bezala bizitzen laguntzen dute. Dibertigarria eta motibagarria izaten da, aldi berean eztabaida ahalbidetzen du, eta gaiak ikuspuntu desberdinetatik aztertzen dira.

Normalean, istorioa aurkezteko bolondresak eskatzen dira, bakoitzari rol bat emanez, agertoki posible bat azalduz, baina inongo gidoi gabe, helburua ikasleek merkatariekin enpatia izatea delako.

2.4.2. Ekintza - Kontsumo arduratsu kanpainak

Hernanin bertako komertzioa eta honen garrantzia balioan jartzeko helburuarekin, bizilagunei eta kontsumitzaileei balioa batzen dien puntuetan zehaztuz eta ikuspegi aktibo eta positibotik, bertako merkataritzako kontsumoaren garrantziari buruzko sentsibilizazio kanpainarekin jarraitzea proposatzen da. Kontsumitzaileak ez doaz “penagatik” erostera, horregatik, hobe da argudio positiboak azaltzea erostera joateko. Hurrengo bi lerroetan azpimarratzea proposatzen da:

- Hernaniko komertzioan eskaintzen diren eskaintza, prezio eta zerbitzuak erakutsi. Bezeroak ez badu eskaintzen dena ezagutzen, ez du baloratzen, eta ez badu baloratzen ez du aukeratuko ezta erosi ere ez, “Lehen Aukera HERNANIK” kanpaina.
- Zure erosketekin, herri modeloa zehazten ari zara eta etorkizuneko Hernani egituratzen ari zara. Nola nahi duzu izatea 15 urte barruko Hernani?

• 2.5 Lerroa: BERRIAKen elkartearen berrindartzea

2.5.1. Ekintza - Gogoeta asoziatibo prozesua

Elkartearen eraldaketa beharren eta ahalmen errealei buruzko gogoeta prozesu bat garatzea proposatzen da:

- Egindako elkarte ibilbidea, landutako ekintzak, inpaktu eraginkorra…
- Eta egun etapa berri bat planteatzeko merkataritzak gaur egun aurkezten dituen behar zehatzak…

…Formakuntza-sentsibilizazio Pilula prozesu baten bitartez.

Beharrezkoa da gogoa berreskuratu eta tokiko merkataritzaren etorkizunari buruz sentsibilizatzea, **errealitatetik** (exigentzia lehiakorra) baina baita **ilusiotik ere** (motibazioa). Testuinguru honetan, egindakoa baloratu behar da, eta dagokion erreflexio eta tokia bilatu, joera berrien aurrean, kontsumitzaile talde berrien aurrean, azaltzen diren aukeren aurrean eta lehiatzeko beharrezkoak diren kudeaketa eta teknologia tresnen aurrean.

2.5.2. Ekintza - BERRIAKen Negozio Modeloaren definitzea

Merkatuko joerak eta erronkak kontutan izanda eta egindakoa balioan jarri eta aztertu ondoren, metodologia berritzaileak erabiliz, adibidez Business Model *Canvas o Lienzo de Modelo de Negocio,* egungo beharrei eta baliabideei erantzuna ematen dieten elkarte modelo berri baten eraikuntza proposatzen da.

• 2.6 Lerroa: Bezeroen arreta Bulegoa

2.6.1. Ekintza - Bezeroen arreta bulegoa

Hernaniko bizilagunak, planaren estrategiaren erdigunean kokatzen dira, ondorioz, hurrengo premisaren azpian Hernaniko merkataritzaren bezeriari artatzeko, kanal baten irekiera proposatzen da: zertan lagun diezagukezu?. Hurbileko komertzio irudia proiektatu nahi da, entzuten duena, eta bezero eta bizilagunez arduratzen dena, horregatik beharrezkoa da beraien esperientzia hobetu dezaketen bezeroen ekarpenak jasotzeko aukera izatea. Bulegoan jasotako informazio honekin merkataritzatik bezeroei balio erantsi bat eskaintzeko era bat da.

Bezeroak artatzeko bide desberdinak eskainiko dira, Internet, modu fisikoan (aurretiko zita) edo kontsumitzailearen arretarako postontzia.
Bulego hau, BERRIAK elkartetik kudeatzea posible bada, kanpainen informazioa, Bonoen banaketa, asetze galdetegiak,.. ere landuko ziren.

3. ARDATZA- EROSKETA ESPERIENTZIA

Dendariek bezeroek beraien dendetan bizi duten erosketa esperientzia planifikatu eta aztertu behar duten moduan, pertsonek udalerrian bizi duten esperientzia ere diseinatu behar da.

Ekimen hauek ekintza ardatz zehatz bat osatzeko alderdi eta esperientzia zehatzak daude, adibidez, udalerriko kudeaketan SMART neurriak sartzeko aukera. Ekimen hauekin hiri adimentsu kontzeptuari egiten zaio erreferentzia, non helburua, kaleetako ingurugiro, ekonomia eta gizarte jasangarritasuna sustatzen duten teknologia berrien areagotzearekin, herritarren hiri esperientzia eta bizi kalitatea hobetzea den.

Gainera, udal eremutik bateratutako presentzia digitala landu behar da, Hernanin bizi izandako esperientziaren arabera pertsonek bizi dituzten faseak kontutan izanda. Esperientzia bizi AURRETIK, MOMENTUAN eta GERO.

3.1 Lerroa: SMART Ekimenak

SMART ekimenen bitartez, hiri adimentsu kontzeptuari egiten zaio erreferentzia, non helburua, kaleetako ingurugiro, ekonomia eta gizarte jasangarritasuna sustatzen duten teknologia berrien areagotzearekin, herritarren hiri esperientzia eta bizi kalitatea hobetzea den.

3.1.1. Ekintza - Free Wifi

Herriko gazte taldea kontsumo eta ohitura berriengatik nabarmentzen da, beraien mugikorretara konektatuak egotera ohituak eta beraien esperientziak sare sozialetan partekatzeko, lagunekin mugikor bidez jolasteko… WIFI irekien bila dabiltzanak. 1.5.1 eta 1.5.3. ekintzen osagarri gisa, MEGeko eremuren batean, adibidez Gudarien Enparantzan, WIFI ireki gune baten sorrera proposatzen da.

Eremu hau irekitzean, Push eskaintza eskaintzeko erabili daiteke, talde hau momentuko eskaintzak erabiltzen bait dituztelako.

3.1.2. Ekintza - Eguzki-energia bidezko mugikor kargagailuak

Hernani Slow ideiaren barruan, energia berriztagarrien bidez funtzionatzen duten gailu teknologikoak kargatzeko puntuen instalakuntza proposatzen da, horrela aisia eta deskantsu guneetan kargagailu hauetara irisgarritasuna izanez.





3.1.3. Ekintza - SMART Kalea

Kale Nagusian, energia eraginkortasuna, zatara azterketa, hondakinen tratamendu, oinezko eta bezeroen trackinga… neurtzen eta jarraitzen duen sistema ezartzea proposatzen da. Sistema honek merkataritza ardatzari buruzko datuak eskaintzen ditu, ondoren, baliabide publikoen erabilpen eraginkorragoa egiteko oinarri gisa balio dezake. Sistema, komertzioetan eta martxan jartzen den kaleetako etxebizitzetan instalatuko zen, eta emaitzen arabera, udalerriko beste eremu batzuetara zabal zitekeen.

Adibidez: SMART KALEA Donostia

3.1.4. Ekintza - Smart Merkataritza

Aurreko ekintzarekin batera, establezimenduek, Hernaniko bezeroen mugimendua behatzeko eta kanpaina zehatzen inpaktua behatzeko, fluxu kontaketa eta datu analisi gailuak (ibeacon adibidez) izatea proposatzen da, horrela erabakiak hartzeko kalitatezko informazioa lortzeko. Aldi berean, sistema honek, erosketa bultzada sustatzeko, bezeroen mugikorretara *Push* jakinarazpenak bidaltzea baimentzen du.

• 3.2 Lerroa: Presentzia digitalaren kudeaketa

3.2.1. Ekintza - Informazio eta presentzia digitala aztertu

Bezeroen asebetetzea lortzeko helburuarekin, beharrezkoa da udalerriko eta merkataritzaren presentzia digitala kudeatzea, Esperientzia digitala deiturikoa. Esperientzia digitala, erabiltzaileen (bezero, merkataritza, komunitatea, bizilagunak) eta Hernani Slow arteko interakzioa da. Presentzia digital bateratua landu behar da, Hernanin esperientzia bizi AURREZ, MOMENTUAN eta GERO pertsonen bizi dituzten fase guztiak kontuan izanik.

Zentzu honetan, Hernani Slow proiektuaren irudi, ezaugarri eta kontaketarekin (4.4.1 ekintza) lotuz, Hernaniko merkataritza baliabideen sare sozial eta web informazio eta presentzia aztertzea ezinbestekoa da.

3.2.2. Ekintza - "Hernani Slow" markaren diseinua

Hernaniko udalerriak eta BERRIAK elkarteak marka eta slogan propio izan arren, biek proposatutako Slow modelora egokitzea behar dute, Kontaketarekin (4.4.1. ekintza) eta proiektuaren balioekin koherentzian: identitatea, Slow merkataritza, jasangarritasuna, komunitatea eta etorkizunerako proiektua.

Adibideak:
BERRIAK *Slow – Algo más que tiendas*
Hernani Slow – *Erosteko beste forma bat*

3.2.3. Ekintza - Posizionamendu Digitala

Difinitutako ezaugarriekin bat eginez hitz gakoen kudeaketaren bidez merkataritza baliabideen kokatzea landu.
Hitz gakoen adibideak: Slow Merkataritza, Merkataritza arduraduna, Merkataritza jasangarria, komunitate publiko-pribatuaren lankidetza, , Merkataritza Eredu alternatiboa…

4. ARDATZA- KOMUNITATEA- Lankidetza publiko pribatua

Hernani behar desberdinak dituzten, antzeko elementuak dituzten eragile eta pertsonek osatutako, eta banakako eran landu beharreko komunitatea da. Horretarako, modu sistematikoan datu eta informazioa jasotzea beharrezkoa da, definitutako talde bakoitzarentzako segmentatutako estrategiak ezartzeko, ondorioz bezeriaren fideltasun prozesuak errazteko.

Ikerketa fasean, komunitateko partaide batzuen aldetik, bertako komertzioa sustatzeko interesa jaso da, baina komunitateak ez du bertako komertzioa sustengatzen duen eta bertako kontsumoaren sostengua sartzen duen partekatutako kontaketarik.

Bertako komertzioa hiri jasangarritasun elementu eta bizi kalitate eta gizarte kohesio elementu bilakatzen duen, “Slow Bizi eta Slow Erosi” elementu integratzaile eta desberdindu gisa duen kontaketa propio baten difusio eta eraketa partekatua ezinbestekoa da.

• 4.1 Lerroa: Datu Baseen optimizazioa

4.1.1. Ekintza – <u>Bezeroen Datuen Bilketa</u>

Hernaniko kontsumitzaile eta bizilagunek, merkatal arrastoa uzten duten. Bezeroen profilak, ohiturak, jatorriak, beharrei… buruzko informazioa izateko datu hauek jasotzeko gai izan behar da (txartelak, kanpainetan galdetegiak). Modu honetan, merkataritza establezimenduek zerbitzu hobeagoak eskaini ahal izango dute eta datu errealetan oinarrituta erabakiak hartu ahal izango dituzte (kanpainak, sustapenak…).

Horrela, komunitate desberdinetako partaideen arteko sinergiak dauden ekintza eta kontsumo datuak eta udalerriko taldeak identifikatzea lortu behar da, Eskaintza eta Eskariaren arteko gurutzaketa eginez.

4.1.2. Ekintza – Bezeroen Datuen Kudeaketa

Informazio hau jasota, bezero desberdinen arteko harremanak kudeatzea errazten duten aukera eta teknologiak (CRM, smartphones…) daude, horrela hauen asebetetzea hobetuz eta ekintzen eraginkortasuna handituz.

Lehen pausua, datu hauen kudeaketarako dauden aukera eta erraminta desberdinak aztertzea da. Lehen tresna gisa whatsappaa izan daiteke, ondo erabilita arrakastatsua izanik, gero erraminta aurreratuekin lan egiteko..

• 4.2 Lerroa: Segmentatutako fidelizazio estrategiak

Bezeria, merkataritza sistemako erdigunea da, eta garatu diren merkataritza dinamizazio klasikoak modu orokorrean garatu dira, kontsumitzaileen arteko desberdintasunik egin gabe.

Hala ere, bezero talde desberdinek, motibazio eta behar desberdinak aurkezten dituzte, horregatik beharrezkoa da estrategia berriak Bezeroaren Fokuan kokatzea, beraien berezitasunetara egokituz. Beharrak, komunikazio erak eta merkataritza estrategiak agerian uzten dituzten ESKAINTZA taldea modu SEGMENTATUAN landu behar dira.

Garapen desberdina izan ditzaketen lan lerro desberdinak aurkezten dira.

4.2.1. Ekintza – Publiko Gaztea

Gazteak “etorkizuneko bezeria” irudikatzen dute. Konplexutasun gehiagoko segmentua da eta kontsumo ohitura desberdinak aurkezten dituzte horregatik, establezimendu batzuk bakarrik izango dituzte segmentu hau lantzeko ahalmen eta jarrera. Orokorrean, publiko honek on line eta off line eskaintza konparatzen du (eta bien arteko interakzioa eskatzen du), Modu “fisikoan” eta “birtualki” mugitzen da, denbora mugatuarekin, eta berehalakotasuna eskatzen duena eta joerei balio handia ematen diena.

Horregatik, sektoreak adin segmentu hau hurrengo puntuak eskainiz landu behar du:

- Talde honentzako bereziki egindako deskontu/zerbitzuak, prezioarekiko sentikorragoak bait direlako. Promozio eta deskontu zehatzekin, gazteentzako "nire lehen Visa" moduko kanpainak
- Merkataritza establezimenduen on line presentzia sustatu. Komertzio bakoitzak, bezeriaren arabera, zein den bere beharretara egokien egokitzen den leiho digitala aztertu behar du (2.1.2. ekintza ikusi). Baina, merkataritza establezimenduek presentzia digital murritza dutela ikusita (Google My Bussines adibidez), oso garrantzitsua izango zen on line iritzi positiboak lortzera lagundu dezaken estrategia abiaraztea, talde gazteak garrantzi handia ematen bait dio sarearen bidez irakurritako iritziei eta.
- Komunikazio aktibo eta anitza: online eta off line bidez elkar eraginez, bide desberdinen bidez modu koordinatuan. Interesgarria da kontsumitzaileek zure markarekin edukia sortzea.
- Merkataritza establezimenduen eta beraien sektoreko influencer-en arteko lankidetza (Sare sozialetan jarraitzaile asko dituzten pertsonak).

4.2.2. Ekintza - + 65 Seniorrak

Hernanin 65 urte baino gehiagoko bizilagunak populazioaren % 20,9 suposatzen dute, joera hazkorra aurkezten duen taldea, eta etorkizunean eskari garrantzitsua kokatzen duen segmentua.

Segmentu honek merkataritza ezaugarri oso zehatz ditu: mugikortasun gutxiago, gastuaren atxikipen ohitura handiagoa (%86,8ko atxikipena), online bidezko erosketak ez dituzte horrenbeste egiten, beraientzat eta beste pertsonentzako erosketak egiten dituzte (seme/alaba, bilobak…), eta denbora dute erosketak egiteko. Horregatik, zilarrezko ekonomia joerarekin batera, adin nagusiko pertsonen merkatu behar zehatzen eta populazioaren zahartzearen bitarteko demografia trantsizioarekin lotutako aukerak, segmentu honi erantzuna emateko Zilarrezko Merkataritza garatzeko idea sortzen da.

Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak Euskadi Lagunkoia programa jarri zuen martxan, pertsona nagusientzako hiri ingurunea eta bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Ekimenera batu daitezkeen establezimendu lagunkoiak eta udalerri lagunkoiak daude.

- Komertzioen artean Establezimendu lagunkoien Programa ezagutarazi.
- Komertzioak Establezimendu lagunkoien sarera batzeko ebaluaketa, egokitzapen eta sartzea.
- Hernaniko udalerria Euskadi Lagunkoia programara sartu.

4.2.3. Ekintza – Erakundeak, Elkarteak eta Clubak

Hernaniko merkataritza sektoreak, udalerriko Clubekin eta elkarte ehunaren gertu aurkeztu behar da. Helburua, erakunde hauek beraien ekitaldi, ekintza, eta orokorrean edozein erosketa egiterako orduan Hernaniko aukera lehen aukera izatean datza, merkatal zentroetan edota Internet bidez erostearen ordez.

Horregatik, honakoa proposatzen da:

- Hernaniko club eta elkarteekin lankidetza hitzarmena sinatu, horrela elkarteek eta clubek bertako kontsumo konpromisoa ikusarazteko.
- Erakunde desberdin eta Hernaniko merkataritza sektorearen arteko sinergiak sortzeko aukeren analisia.

Adibidez, Txillida Lekurekin, Hernaniko dendetan era zehatzean produkturen bat saltzeko, edo Txillida Lekun dendek moduren baten presentzia fisikoa izateko, akordio bat egin zitekeen.

4.2.4. Ekintza - Merkataritza 2

Komertzioak, produktu eta zerbitzu saltzaile izateaz gain kontsumitzaileak dira, horregatik garrantzitsua da sektoreko enpresen arteko barne kontsumoa eta batera lan egitea. Ondorioz, komertzioei hurrengo puntuak eskaintzen dizkieten Hernaniko Merkatari Sarea sortzea proposatzen da (BERRIAk Negozio Modelo berriaren barruan sar daiteke 2.5.2 ekintza):

- Komertzioen arteko Komunikazio Digitala.
- Aukera bateratuak aztertzeko Networking Topaketak.
- Komertzioen arteko eskaintza / deskontuak (Txartel/monetara lotutakoak).
- Komertzioen arteko Mentoria Programa
- Sareko beste establezimendu batzuetako produktu/zerbitzu osagarriak aurkezten diren coners-ak sortu
- Komertzioen artean produktu eta/edo zerbitzuak partekatzea, saltze/erostea eta alokairua (5.4. lerroa proiektu singularra: merkataritza[2])

4.2.5. Ekintza - Beterri km0 Sarea

Beterri Km0 ekimena, bertako produktua sustatzeko, bertako ostalaritza eta merkataritza kontsumoa indartzeko eta denboraldiko, ekonomia eta osasuntsua den eskaintza lortu nahi duen ekimena da. Hernani Slow estrategian ondo enkoadratzen den ekimena da, horregatik honakoa proposatzen da:

- Hernaniko ostalaritza eta merkataritza establezimenduen arteko ekimenaren zabaltzea handitu.
- Hernanin Beterri Km0 ekitaldiak antolatu
- Hernaniko kontsumitzaile, komertzio eta ostalariei zuzendutako Ekitaldi antzeko, nekazaritza produkzioetara bisitak antolatu.

4.3. Lerroa: Kontsumitzaileen azterketa

4.3.1. Ekintza -Foku-taldeak (Focus Group)

Kontsumitzaile araberako eta Zeharkako beste talde egonkorrak (5-12 partaide) sortzea proposatzen da, horrela urtean behin edo pare bat aldiz elkartu ahal izateko, zerbitzuen, proiektuek ideien ikerketa eta azterketarako, edota hauek abiarazi edo garatzeko.

Onena kontsumitzaile talde hauek aurrez aurrekoak izatea izan arren, askotan partaideei sustagarriak ematea beharrezkoa delako, on line bidezko foku taldeak antolatzea ere posible da, lan egin behar den taldearen arabera interesgarria.

4.4. Lerroa: Hernani SLOW kontaketaren eraikuntza

4.4.1. Ekintza -Hernani Slow Kontaketa

Gomendagarria da, Hernani Slow markaren balioa transmititzen duen istorio bat sortzea, eta Hernani komunitatea osatzen duten eragile eta kontsumitzaileek identifikatuta sentitzea behar dutenek, Hernani Slow beraien marka sentitzea. Balio emozional altua duen kontaketa izan behar da, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen aipatzen duena.

Hernani Slow kontaketa eraikitzeko orduan, Storytellingen taktiketara jo daiteke, gure marka indartzen duten istorioak azalduz eta Storytellingenko egitura eta elementu narratiboak erabiliz eta elementu bisual erakargarrien (formatu desberdinak) bitartez. Garrantzitsua da kontaketako protagonistan pertsonak izatea, kontsumitzaileek horrela harreman emozionalak eta beraiekin enpatizatu ahal izateko.


• 4.5 Lerroa: SLOW animazio eta dinamizazioa

4.5.1. Ekintza - Hernani SLOW Azoka

Slow mugimenduaren erreferente den azoka antolatu, non hizketaldiak, sentsibilizazioa, ekintzak, dastaketak… antolatzen diren. Komunitate guztiak presentzia duen tokia eta Hernaniko komertzioak ikusgarri egiten diren.

4.5.2. Ekintza – Antolatzen diren ekintza eta ekitaldietan SLOW baldintzak sartzea

Elkarte animazio eta dinamizazioak ohiko ekintzen jarraipena izan behar du, eta gomendagarria izango zen bazkide, bezero eta Planaren ikuspuntuaren araberako behar berrien arabera ekintzak berriz pentsatzea eta egokitzea.



Urtero egiten diren ekitaldi bakoitza zergatik egiten den gogoratzea, horretarako "ohiko" jarduera/ekitaldi/ekimen bakoitzaren MIEE (Mantentzea- Indartzea- Eraldatzea- Ezabatzea) analisi erraz bat eginez. Gogoetak jarduera horiek birpentsatzera eta urteroko egutegi erakargarri eta osoa lantzera eramaten du, eta Slow baldintzak ekitaldian txertatzera, hau ikuskatzen joango den eta aldatzen urteak aurrera egin hala.

• 4.6 Lerroa: "cittaslow" sarean sartzea

4.6.1. Ekintza - "*Cittaslow*" Sarea

Hernani *Cittaslow* (hiria+mantsoa) Sarera batzea proposatzen da, Slow Food erakundean inspiratuta 1999ko urrian Italian sortutako mugimendua. Mugimendu honen helburua, hirien bizi kalitatea hobetzea da, amerikanizazio eta homogeneizazioari aurre egiten dieten bitartean, non frankiziek dena irabazten duten. Dibertsitate kulturala eta hiriaren ezaugarriak sustatzea da Cittaslowen balioen nukleoa (https://www.cittaslow.es/).

5. ARDATZA- PROIEKTU ESTRATEGIKO SINGULARRAK

Aurreko lau ardatzek garapenerako beharrak eta / edo ekintzak sortzen dituzte; eta bostgarren lan ardatz honek lau proiektu nagusiak garatzen ditu, hauek martxan jarrita proposatutakok helburuen zati handi bat betetzera lagunduko dute.

• 5.1. Lerroa: Moneta lokala: URU

Deskribapena

Slow merkataritza modeloak, alternatiboa, beste erosteko eta ordaintzeko era eskatzen du, denboran jarraituko duen eta laguntza ekonomiko izango duen paradigma berri hau.. Horrela, herriko moneta berri bat jartzen da merkatuan; URU-a (Urumeari erreferentzia).
Bertako moneta propio baten diseinu eta abiaraztea proposatzen da, jarraian azaltzen diren arrazoiengatik:

- Izaera ekologikoa, soziala eta bertakoa duen ekonomia estimulatzeko bertako izaera duen moneta. Ezin da berarekin espekulatu.
- Bertako moneta propioa, Hernaniko beharretara errazago egokitzen da, honen funtzionamendu eta balioa ezartzeko dago oraindik.
- Euskadin ez da asko garatu den eta kide egitea interesgarria den monetarik identifikatu→ hurrengo adibideak nabarmentzen dira: EUSKO-Iparralde; Ekhi–Bizkaia; Txanpon-Nafarroa.
- Merkataritza estrategia Hernaniko Bizilagunen fidelizazioan datza, horregatik beharrezkoa da indar guztiak Hernaniko komunitatea atxikitzean erabiltzea.
- Komunitatea sortzen laguntzen duen tresna da, bere erabilera konfiantzan eta elkarrekikotasunean oinarritzen delako .

Honi, moneta eta billete beharrik ez egotea batzen zaio, teknologia nahikoa baita dago eta. Ondorioz, merkataritza sektorea publiko digitalizatuera gerturatzen den, bere abiaraztea erraztuz.

Proposamenak, erabiltzeko erraza den eta mugikorrarekin ordaindu ahal izatea %100 elektronikoa den bertako moneta sortzea nahi du.
Erabiltzaileek, URU moneta birtuala izango dute, hauekin erosketaren zati bat (deskontua) ordaindu ahalko dute edo erosketa osoa, hau komertzioaren arabera izango da.

URU hauek, sari, zozketa.. bitartez jarri daiteke martxan… ezartzen den komertzioetan, euroak URUengatik aldatuz. Prezioek zenbateko desberdinak izan ditzakete ordaintzen den monetaren arabera, horrela bere erabilpena sustatuz.

Interesgarria izango zen, udalerriko taberna eta komertzioez gain, Hernaniko enpresek ere URUa erabiltzea, aseguruak, gremioak, akademiak… horrela bertako ekonomia sustatuz.

Bertako moneta birtualaren sistema hau kudeatzen duen aplikazio baten garapen eta ezarpenean oinarritzen da.

Azkenik, interesgarria izango zen BERRIAK elkarteko eta Hernaniko udaletxearen Hernani Txartela URUen erabilerarekin bateratzearen azterketa egitea.

Prototipoa: **"URU" Negozio Eredua**

Zer: Hurbileko merkataritza eta bertako ekonomia sustatzen duen gizarte moneta birtual berri bat abiaraztean datzan ekimen soziala da.

Nori: Hernaniko kontsumitzaileei eta udalerriko enpresei zuzendutako ekimena.
Ekimen honetan parte hartzeko, komertzioek ekimenarekin bat egin beharko zuten, eta transakzioak egiteko aplikazio digital bat garatu.

Nola: Hernaniko enpresak ekimenera batzen dira eta kontsumitzaileek enpresetan ordainketak egiteko URUak erabil ditzakete. Guzti hau paper eta monetatik atera gabe, teknologia mugikorraren bitartez egina.

Horretarako, beharrezkoa izango zen aplikazio digitala erakustea eta partaideei teknologiaren erabilpenean prestatzea. Hau abiarazteko, datu base txiki bat izatea beharrezkoa izango zen. Beharrezkoa da ere, erakunde edo pertsonaren bat proiektuaren dinamizazio, mantenu eta kudeaketaz arduratzea.

Zenbat: Zehaztasunetan sartu gabe, proiektu hau garatzeko egin beharreko ibertsioa eta hileko gastuak azaltzen dira jarraian:


Hasierako inbertsioa
- Aplikazioaren garapena
- Marka eta irudiaren sorrera eta difusioa

Finantzaketa era posibleak
- Kapital propioa
- Diru-laguntzak
- Laguntzak

Hileko gastuak
- Publizitate eta sustapena.
- Plataformaren mantenua.
- Kudeaketarako langileak

Hileko sarrerak
- Erabilpen portzentajea
- Clubera afiliazio kuota
- Publizitatea

Business Model Canvas: Negozio ereduaren lientzoa



Erreferentziak

https://rec.barcelona/es/inicio/
(Bartzelonako moneta sozial birtuala)




http://www.costavales.com
(Galiziako moneta lokal fisiko eta birtuala)




https://web.clickoin.com/
(Plataforma Digitala)



- http://www.euskalmoneta.org
(EUSKO)



https://bristolpound.org/
(Bristol Pound)



- **5.2. Lerroa: BIR-JANTZI**

Deskribapena

Hernaniko komertziotan ekonomia zirkularreko ekimen bat abiaraztea proposatzen da. Jendeak erabiltzen ez duen arropa asko du armarioetan, eta momenturen baten hauek desegin beharko dituzte.

Proposamena, Hernaniko dendetan edukiontzi/kaxak ezartzean datza, horrela udalerriko pertsonek bertan erabilitako arropa, oinetakoak eta osagarriak utzi ahal izateko. Aurrerago arropa etxebizitzetan jasotzeko aukera baloratuko da (abiaraztearekin eta etxeko entregarekin lotuta).

Poltsa hauek uztean, komertzioek Hernaniko komertzioetan gastatzeko 5€ko txartelak emango ditu (adibidez) edo beste motatako sustagarriak. Horrela, komertzioek emandako deskontu edo txartelak jasangarritasunari fabore egiten dion ekintzarekin lotzen dira.

Jasotako arropa, oinetako eta/edo osagarriekin aukera desberdinak daude, baina fokua bitan jartzen da:

- Komertzioek poltsa hauek Erantzukizun Sozial Korporatiboko neurri gisa, erabilitako arropak kudeatzen dituen erakundean entregatuko dituzte. Koopera, Emaus…
- BERRIAK edo ekimenean parte hartzen duten komertzioak, jasotako arropen kudeaketaz arduratuko dira.

Azken kasu honetan, lehen eginkizuna, jasotako arropa eta osagarriak berrerabiltzea izango zen, arropei bigarren bizitza emanez. Bigarren bizitza izateko baliagarriak diren arropak aukeratzean, programan parte hartzen duten dendetan ekimenaren corners-en bidez arropa eta / edo osagarrien lerro bat garatzea nahi da, edota salmentarako bigarren eskuko arropen online bidezko denda sortzea.

Ezaugarri minimoak betetzen ez dituzten arropak, Hernaniko dendetan komertzializatzeko "*Made in Hernani*" o "*Hernani Slow*" arropak sortzea baimentzen duten materialak eta fibrak lortzeko birziklatuko dira.

Lortutako bigarren eskuko arropa hauen amaierako salmentan lortutako sarrerak, ekimena mantentzeko edo udalerriko izaera sozialeko erakunderen bati eman al zaio.

Prototipoa: **"Bir-Jantzi" Negozio Eredua**

Zer: Hernaniko bizilagunei hondakinen sorkuntza murrizteko aukera eta aldi berean herriko komertzioetan kontsumitzeko etekin motaren bat lortzea lortu nahi da.
Hernani SLOW herri eta komertzio erreferente bihurtzen duen produktu/zerbitzua sortu.

Nori: Ekimen hau Hernaniko bizilagun eta komertzioei zuzenduta dago.
Ekimena martxan jartzeko, komertzio partaideek arropak uzteko edukiontziak izango dituzte, eta komunikazio fisiko eta digital estrategia diseinatu eta landuko da.

Nola: Ekimena aurrera eramateko beharrezko baliabide nagusia, denda eta edukiontziak dira; Hernaniarren inplikazioarekin batera, hauek bait dira bigarren bizitza izango duten arropak emango dituztenak eta.
Arropak jasotzean, 2. Aukerarako estrategikoa da arropen azterketa eta prestaketa, eta birziklapen eta tratamendurako enpresekin hitzarmenak lotzea.

zenbat: Zehaztasunean sartu gabe, egin beharreko inbertsio nagusiak eta hileko gastuak aurkezten dira.


Hasierako inbertsioa
- Bilketa edukiontziak
- Marka eta irudiaren sorrera eta difusioa

Finantzaketa era posibleak
- Kapital propioa
- Diru-laguntzak

Hileko gastuak
- Publizitate eta sustapena
- Jasotako arropen tratamendua

Hileko sarrerak
- Arropen salmenta
- Erabileragatik ordainketa
- Irabazi sozialak

Business Model Canvas: Negozio ereduaren lientzoa



Erreferentzia bisualak















• 5.3. Lerroa: DENDAK GERTU

Deskribapena

Bi zutabetan sostengatzen den ekimen baten abiaraztea proposatzen da:

- Bezeroek erosketak egiteko bide desberdinak erabiltzeko aukera
- Hernaniko kontsumitzaileen erosketak etxebizitzetan entregatzeko aukera erraztu, bai erdi gunean zein auzoetan.

Horrela, egungo kontsumitzaileekin bat datorren sistema landuko zen, eta erosketak egitera joateko zailtasunak dituzten pertsonentzako edota erdigunetik urruti dauden pertsonentzako aukerak eskainiz.

Hernanintzako modelo egokiena aurkitzeko egon arren, telefono bidez edo whatsapp bidez edo aurrez aurre komertziotan zuzenean eskaerak eta erosketak egiteko sistema batean pentsatzen da (aurrerago web salmenta baloratzeko).

Komertzioak eskaria jasotzen duen momentuan, prestatu eta eskariak jasotzen dituen bulegora eramaten du (BERRIAK elkarteak egin lezake).
Bulego honetatik, eskari guztiak bezeroen etxebizitzetan entregatzen dira.

Pilotu moduan, entrega aukera hau astean bi egunetan egitea proposatzen da, astearte eta ostiraletan adibidez, eguerdi eta arratsalde gabean.

Proiektuaren lerroa jarraituz, ibilgailua karga dun bizikleta bat edo auto elektriko bat izan beharko zen, azken hau egokiagoa gertatuz, herriko orografia eta Hernaniko auzo desberdinen geografia banaketa kontutan izanda.

Prototipoa **"Dendak Gertu" Negozio Eredua**

Zer: Hernaniko komertzioa bizilagunei gerturatzea nahi da, kontsumitzeentzako erantsitako balio dun zerbitzua eskainiz, merkataritza establezimenduen salmenta sustatuz. Azkenik BERRIAKek kudeatzen badu, elkartearen balioa handituko zuen zerbitzua eskainiko zitzaien bazkideei, eta beste bazkideak lortzeko erreklamo izan zitekeen.

Nori: Ekimen honek bi talde zehatzen beharrak betetzen ditu:

- Hernaniko kontsumitzaileak (Erdigunea eta kanpoko auzoak)
- Hernaniko komertzioak

Komertzio parte hartzaileen eskaintza zabaltzeko, gailu desberdinak landuko dira ekimena osatzen duten establezimenduekin (fisiko eta web), hauen telefono zenbakiak, harremanak, eta erabilpen baldintzak jasoz.

Nola: Proiektua abiarazteko ezinbesteko baliabidea ibilgailua da, eta eskaerak, eta banaketaren kudeaketa aurrera eramateko langileak. Hau lantzeko aukera desberdinak aztertu behar dira:

- Ibilgailua: Txita *vs* motorra *vs* autoa / Ibilgailu erosketa *vs* Ibilgailu alokairua
- Langileak: Langileen kontratazioa
- Kontratazio integrala: zerbitzu guztiaz arduratzeko enpresaren batekin lankidetza hitzarmena edo kontratua.

Zenbat: Zehaztasunean sartu gabe, egin beharreko inbertsio nagusiak eta hileko gastuak aurkezten dira.

Hasierako inbertsioa

- Ibilgailua + asegurua
- Errotulazioa
- Altzariak eta eskarietarako apalategiak
- Barne kudeaketa sistema
- Marka eta irudiaren sorrera eta difusioa

Finantzaketa era posibleak

- Kapital propioa
- Diru-laguntzak
- Maileguak


Hileko gastuak

- Ordainketa pertsonala
- Publizitate eta sustapena
- Ibilgailuaren mantenua

Hileko sarrerak

- Bezeroen ordainketak
- Komertzioen ordainketak
- Ibilgailuan publizitatearen salmenta

Business Model Canvas: Negozio ereduaren lientzoa



Erreferentzia bisualak











• 5.4. Lerroa: Merkatari^2

Deskribapena

Hernaniko merkataritzen arteko ekonomia kolaboratibo ekintza bat abiaraztea proposatzen da. Komertzioek establezimenduen kudeaketarako baliabide desberdinak behar dituztela badakigu, baina ez da beti hauen erabilpen intentsiboa egiten eta ez daude beti libre.. Adibidez, manikiak, altzariak, inprimatzaileak, prezio etiketatzaileak, alarma sistemak, toldoak, mahaiak eta aulkiak, argiztapen sistemak…

Idea, beraien enpresetarako beharrezkoak izango dituzten baliabide eta zerbitzuak konpartitzeko sistema/web bat diseinatzea da.

- Komertzio batek produktu/zerbitzuak eskatzen ditu, sareko beste batek eskaini egiten dio, hau kobratuz edo proiektuaren diseinuan definitzen den konpentsazio eraren bitartez.
- Komertzio batek Sareko beste komertzioen eskura jartzen ditu berak erabiltzen ez dituen edo saldu edo orduka alokatu nahi dituen baliabide zehatzak.

Prototipoa: **“Merkatari^2” Negozio Eredua**

Zer: Hernaniko komertzioek erabiltzen ez dituzten eta existitzen diren baliabide eta ondasunen aprobetxamendu eraginkor eta jasangarria sortzen duen plataforma digital baten garapena

Nori: Ekimen hau Hernaniko komertzioei zuzenduta dago.
Ekimen honetan parte hartzeko, komertzioak komertzio Sareko parte izan beharko ziren, eta konexio eta lankidetzak errazten dituen plataforma digitala garatu beharko zen.

Nola: Ekimena abiarazteko beharrezko baliabide nagusia, plataforma digitala eta hau mantentzeko langileak dira. Sistema propioaren kudeaketa eta funtzionamendua arautzen duten oinarrien garapena gakoa izango da.

Zenbat: Zehaztasunean sartu gabe, egin beharreko inbertsio nagusiak eta hileko gastuak aurkezten dira.


Hasierako inbertsioa
- Plataforma digitalaren garapena
- Irudi eta markaren sorrera eta honen zabaltzea

Finantzaketa era posibleak
- Kapital propioa
- Diru-laguntzak

Hileko gastuak
- Publizitate eta sustapenak.
- Plataformaren mantenua.


Hileko sarrerak
- Erabilpen portzentajea
- Clubaren afiliazio kuota
- Publizitatea

Business Model Canvas: Negozio ereduaren lientzoa



Erreferentziak

www.yardclub.com
(eraikuntzan)



www.floow2.com
(Merkataritza equipo eta zerbitzuak)



6. ARDATZA- GOBERNANTZA

Garatutako anbizio handiko Ekintza Planak, egonkorra izango den lankidetza publiko-pribatua behar du, Ekintza Planaren dinamizazio eta kudeaketari buruzko beharrezko elementuak sostengatuz.

Eragile bakoitzaren ahalmen errealei buruz lan egitea ezinbestekoa da, eta beharrezkoa izango balitz, Plana modu eraginkorrean garatzeko, eragile bakoitzaren muga eta ahalmenak kontutan izanda, lan errealistak egokituz.

Ondorioz, hurrengo oinarri eta lehentasunak ezartzen dira:

- ✓ **Lidergotza publikoa:** Sektoreko mikroenpresa ezaugarriak eta zatikatuak eta honen egoera zaila ezagututa, Tokiko Garapen eraldatzaile lidergotza, behar diren konpetentziengatik eta ahalmen eraginkorrengatik, Udaletxeei dagokie.

  Egungo konpetentzia banaketa eta egitura dela eta, Sustapen Ekonomiko zinegotzigo baten sorrera proposatzen da, bereziki Bertako Merkataritza lantzeko. Zinegotzigo hau izango da ekimenak lantzen dituen, ekimenen abiaraztea eta prozesua animatuz.

- ✓ **Merkataritza eta Turismo Sailaren indartzea / Laguntza teknikoa:** Planaren dinamizazioak, egun dauden ahalmenak gainditzen dituen laguntza teknikoa behar duten ezagutza zehatzak eta lanketa jarraitua eskatzen du. Horregatik, Merkataritza eta Turismo Sailaren indartzea proposatzen da, pertsona baten kontratazioarekin, edota ekimen desberdinak, proiektu estrategiko singularrak, zerbitzuak edo beste formula batzuen bitartez modu errealistan dinamizatzen duen laguntza teknikoaren bitartez.

- ✓ **Ezinbesteko sektore lankidetza:** sektorea beharrezko eta ezinbesteko laguntzaile gisa azaltzen da. Bere kohesio, inplikazio aktiboak eta mobilizazioak ekintza legitimatzen du, eta aldi berean, operatiboki, bideragarri egiten duena. Zentzu honetan, BERRIAK elkartea adierazgarritasun handiagoarekin indarra hartzen du.

- ✓ **MERKATARITZA MAHAIAREN berdefinitze eta berpizketa**: Merkataritza Ekintza Planaren abiarazteerako eta garapenerako topaketa eremu baten sorreran datza.

  Merkataritza mahaia, lan foru eta bertako merkataritza eragileen eta hiri ekonomiaren topaketa puntu gisa eratzen da.

  Lehen fasean, sektoreko, BERRIAK merkatari elkarteen ordezkariak eta Udaletxeko ordezkariak topatzeko eta Ekintza Planaren inguruan koordinatzeko eratzen da.

  Merkataritza Mahaia finkatzean, Hiri Ekonomia, Kultura, turismo elkarte, kirol… kluster bat eratzeko beste eragile batzuk sartzea proposatzen da.

- ✓ **Merkataritza Behatokia**: Neurriak hartzea eta ebaluatzea baimentzen duen proiektuen garapen maila eta Hernaniko Merkataritzaren egoeraren jarraipena baimentzen duen Aginte-Mahai bat sortzea proposatzen da.

ESKU HARTZEEN LABURPENA

ARDATZA	EKINTZA	LIDERRA (L)-KOLABORATZAILEA (K)	ADIERAZLEA	DENBORA LEHENTASUNA	AURREKONTU ORIENTAZIOA
Eje 1: ESPACIO URBANO	**1.1.L.- Lokal Hutsak**				
	1.1.1. Ekintza Lokal Hutsen Erroldaren berrikuste eta mantenua	Udaletxea (L) – Beterri/Buruntza (K)	• Aztertutako kale kopurua • Aztertutako lokal kopurua • Aukeratutako lokal kopurua • Egindako ekintza kopurua	ERTAINA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua + urteko doikuntza
	1.1.2. Ekintza SLOW irizpideen txertaketa				
	1.2.L.- Legedia				
	1.2.1. Ekintza Kaskoan Terrazen instalakuntzen arautegiaren berrikustea	Udaletxea (L); BERRIAK (K);Elk. Kaxko (K)	• Ordenantzaren analisi eta berrikustea • Ordenantza berriaren idazte eta onespena	ERTAINA	e.d.
	1.2.2. Ekintza Apaintasun Ordenantza	Udaletxea (L)	• Ordenantzaren idazte eta onespena	BAXUA	e.d.
	1.2.3. Ekintza Kontratazio eta baldintzetan Gizarte klausulak sartu	Udaletxea (L)	• Praktika onen eta adibideen azterketa • Idatzitako eta onetsitako klausula kop. • Txertatu diren kontratu kopurua	ERTAINA	e.d.
	1.2.4. Ekintza Behar beharrezkoak diren komertzioen ezarketa eta mantenua	Udaletxea (L)	• Programa pilotuaren diseinua • Dinamizatutako laguntzak • Dinamizatu diren auzoak	ERTAINA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua + urteko doikuntza
	1.3.L.- Irisgarritasuna eta harrera				
	1.3.1. Ekintza Irisgarritasuna	Udaletxea (L)	• Egindako bilera kopurua • Egindako aldaketak	ALTUA	Irisgarritasun Plana: Oinarrizko orientazioa: 20.000€
	1.3.2. Ekintza Aparkaleku gehiagoz hornitu	Udaletxea (L)	• Urteko aurrekontuan zerbitzuaren txertaketa • Zerbitzuaren abiaraztea	ERTAINA/ALTUA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua + urteko doikuntza
	1.3.3. Ekintza Aparkaleku ordenantza	Udaletxea (L)	• Ordenantzaren idazte eta onespena	BAXUA	n.p.
	1.4.L.- Hiri adeitasuna				
	1.4.1. Ekintza Seinaletika	Udaletxea (L)	• Indartu behareko puntuen identifikazioa • Seinaleen indartzearen instalakuntza	ALTUA	Seinale Plana Oinarrizko orientazioa: 13.000€
	1.4.2. Ekintza Hiri estandarrak eta ekipamenduak	Udaletxea (L)	• Hiri estandarren urteko berrikustea • Berrikustearen araberako ekintza Plana	ERTAINA	Beharrezko inbertsioaren arabera egokitutako doikuntza
	1.5.L.- Aisia eremuen berrikustea				
	1.5.1. Ekintza Gudarien Enparantza	Udaletxea (L)	• Enparantzaren berritze ikerketa (Bai/Ez) • Berritze lanen aurrekontua • Proiektuaren onespena • Obren hasiera	ALTUA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua
	1.5.2. Ekintza Plaza Berrirekin konexioa	Udaletxea (L) – Beterri/Buruntza (K)	• Konexioaren aurrekontua • Proiektuaren onespena • Egindako ekintzak	ERTAINA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua
	1.5.3. Ekintza Altzari singularrak	Udaletxea (L)	• Egungo altzarien azterketa • Singular eskuratze berriak	BAXUA	egindako inbertsioaren arabera egokitutako doikuntza

ARDATZA	EKINTZA	LIDERRA (L)-KOLABORATZAILEA (K)	ADIERAZLEA	DENBORA LEHENTASUNA	AURREKONTU ORIENTAZIOA
Eje 2: SECTOR COMERCIAL COMPETITIVO	**2.1.L.- Teknologia eta Digitalizazioa**				
	2.1.1. Ekintza Teknologia eta elementu digitalei buruzko formakuntza pilulak	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Egindako saio kopurua • Partaideen balorazioa • Partaide kopurua • Egindako komunikazio ekintza kop.	ALTUA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	2.1.2. Ekintza Merkataritza Enpresaren Eraldaketa digitalaren tutoretzak				
	2.2.L.- Merkataritzan Bezeroaren esperientziaren diseinua				
	2.2.1. Ekintza Bezeroen Esperientzia Maparen diseinuan laguntza	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Egindako saio kopurua • Partaideen balorazioa • Partaide kopurua • Egindako komunikazio ekintza kop.	ERTAINA/ALTUA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	2.2.2. Ekintza - Altzariak	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Egindako Check list • Egindako ekintzak	BAXUA/ERTAINA	Banakako eran aurre egin beharrekoa
	2.3.L.- Entrenamendu exekutiboa				
	2.3.1. Ekintza Entrenamendu exekutiboa	BERRIAK (L) y Udaletxea (K)	• Saio kopurua • Partaide kopurua • Egindako komunikazio ekintza kop.	ALTUA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	2.4.L.- Merkataritzaren sentsibilizazio eta balioan jartzea				
	2.4.1. Ekintza Role Play (Rol jolasak)	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Egindako ekintza kopurua • Partaide kopurua • Egindako komunikazio ekintza kop.	ERTAINA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	2.4.2. Ekintza Kontsumo arduratsu kanpainak	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Egindako ekintza kopurua • Egindako komunikazio ekintza kop.	ERTAINA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	2.5.L.- BERRIAKen elkartearen berrindartzea				
	2.5.1. Ekintza Gogoeta asoziatibo prozesua	BERRIAK (L)	• Gogoeta (Bai/Ez) • Garatutako prestakuntza / sentsibilizazio pilula kopurua	ALTUA	6.000€ prestakuntza programa zehatz baterako
	2.5.2. Ekintza BERRIAKen Negozio Modeloaren definitzea	BERRIAK (L)	• Egindako saio kopurua • Proposatutako berri kopurua • Ekimen / zerbitzu berriak	ALTUA	Negozio Modelo berriaren arabera garatu beharreko aurrekontua
	2.6.L.- Bezeroen arreta Bulegoa		•		
	2.6.1. Ekintza Bezeroen arreta bulegoa	BERRIAK (L)	• Eskainitako zerbitzu kopurua • Artatutako kontsulta kopurua	BAXUA/ERTAINA	Elkarte ehunari aurrekontu laguntza esparrua zehazteke (Oinarrizko orientazioa: 10.000 €/urtea)

ARDATZA	EKINTZA	LIDERRA (L)-KOLABORATZAILEA (K)	ADIERAZLEA	DENBORA LEHENTASUNA	AURREKONTU ORIENTAZIOA
Eje 3: EXPERIENCIA DE COMPRA	**3.1.L.- SMART Ekimenak**				
	3.1.1. Ekintza Free Wifi	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Instalatutako konexio puntu kopurua • Erabiltzaile / alta kopurua • Erabiltze momentuak: egunak, orduak…	BAXUA/ERTAINA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua + urteko doikuntza
	3.1.2. Ekintza Eguzki-energia bidezko mugikor kargagailuak	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Instalatutako gune kopurua • Erabiltzaile kopurua	BAXUA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua + urteko doikuntza
	3.1.3. Ekintza SMART Kalea	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Aztertutako praktika on kopurua • Ezarritako neurri kopurua	ERTAINA	Proiektuaren sorreraren arabera garatu beharreko aurrekontua + urteko doikuntza
	3.1.4. Ekintza Smart Merkataritza	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Establezimendu partaide kopurua • Egindako ekintza kopurua • Datuen esplorazio eta irakurketa	BAXUA	e.d.
	3.2.L.- Presentzia digitalaren kudeaketa				
	3.2.1. Ekintza Informazio eta presentzia digitala aztertu	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Egindako analisiak • Aztertutako plataformak • Proposatutako ekimenak	ERTAINA	Ekintzaren sorreraren arabera zehazteke
	3.2.2. Ekintza "Hernani Slow" markaren diseinua	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Marka estrategiak (**Bai/Ez**)	ERTAINA	Ekintzaren sorreraren arabera zehazteke
	3.2.3. Ekintza Posizionamendu Digitala	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Marketin digital Plana (Bai/Ez) • Garatutako ekintza kopurua	ERTAINA	Ekintzaren sorreraren arabera zehazteke

ARD.	EKINTZA	LIDERRA (L)-KOLABORATZAILEA (K)	ADIERAZLEA	DENBORA LEHENTASUNA	AURREKONTU ORIENTAZIOA
Eje 4: KOMUNITATEA-Colaboración público-privada comunitaria	**4.1.L.- Datu Baseen optimizazioa**				
	4.1.1. Ekintza Bezeroen Datuen Bilketa	BERRIAK (L)	• Erabiltzaile/alta kopurua • Erakarpen kanpaina kopurua	ALTUA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	4.1.2. Ekintza Bezeroen Datuen Kudeaketa	BERRIAK (L)	• Aztertutako tresna kopurua • Fidelizazio kanpaina kopurua • Hobekuntza ekintza kopurua	ALTUA	Elkartearen ekintzaren esparruan
	4.2.L.- Segmentatutako fidelizazio estrategiak				
	4.2.1. Ekintza Publiko Gaztea	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Erabiltzaile/alta kopurua • Garatutako jarraipen tresna kopurua • Aztertutako kontzentrazio mapa kopurua	ERTAINA/ALTUA	Ekintzaren zehaztasunaren arabera zehazteke Aurrekontua: 15.000€ hasieran
	4.2.2. Ekintza + 65 Seniorrak	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• LAGUNKOIAri buruzko informazio-prestakuntza saio kopurua • Establezimendu partaide kopurua • Egindako ebaluaketa kopurua • Lagunkoia bereizgarria lortu duten establezimendu kopurua	ERTAINA/ALTUA	Ekintzaren zehaztasunaren arabera zehazteke Aurrekontua: 10.000€ hasieran
	4.2.3. Ekintza Erakundeak, Elkarteak eta Clubak	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Akordio kopurua • Parte hartu duten bezero kopurua	ERTAINA	Elkartearen ekintza esparruan + hasierarako doikuntza berezia
	4.2.4. Ekintza Merkataritza 2	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)			Proiektua ikusi
	4.2.5. Ekintza Beterri km0 Sarea	Beterri/Buruntza (L) eta BERRIAK (K)	• Ostalari eta merkatarien arteko bilera kopurua • Ekintza partekatu kopurua • Errepikatutako / erreplikatutako ekintza kopurua	ERTAINA	Elkarte ehunari aurrekontu laguntzaren esparruan zehazteke
	4.3.L.- Kontsumitzaileen azterketa				
	4.3.1. Ekintza Foku-taldeak (Focus Group)	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Bezeriaren ikuspegian oinarritutako Estrategia diseinua. • “kontsumo unitatearen” sorrera • “kontsumo unitatearen” bilera kop. • Egindako txosten kopurua	BAXUA/ERTAINA	Ekintzaren zehaztasunaren arabera zehazteke Partaideei sari aurrekontua 500€
	4.4.L.- Hernani SLOW kontaketaren eraikuntza				
	4.4.1. Ekintza Hernani Slow Kontaketa	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Marka estrategia (**bai/Ez**) • Bilera kopurua • Komunikazio ekintza kopurua	ERTAINA	Ekintzaren zehaztasunaren arabera zehazteke
	4.5.L.- SLOW animazio eta dinamizazioa				
	4.5.1. Ekintza Hernani SLOW Azoka	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Egindako ekitaldi kopurua • Establezimendu partaide kopurua • Lortutako bezeria kopurua	ERTAINA	Tamainaren arabera zehazteke
	4.5.2. Ekintza Antolatzen diren ekintza eta ekitaldietan SLOW baldintzak sartzea	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Aztertutako ekitaldi kopurua • Egindako aldaketa kopurua	ERTAINA	e.d.
	4.6.L.- “cittaslow” sarean sartzea				
	4.6.1. Ekintza “Cittaslow” Sarea	Udaletxea (L)	• Izandako bilera kopurua • Txertaketarako garatutako ekintzak • Egindako txertaketak	ERTAINA	Tamainaren arabera zehazteke

ARDATZA	EKINTZA	LIDERRA (L)-KOLABORATZAILEA (K)	ADIERAZLEA	DENBORA LEHENTASUNA	AURREKONTU ORIENTAZIOA
5. ARDATZA- PROIEKTU ESTRATEGIKO SINGULARRAK	**5.1.L.- Moneta lokala: URU**	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Ekimenaren martxan jartzea • Erabiltzaile kopurua • Elkartutako establezimendu kop.	ALTUA	Udaletxearen bidez proiektuaren hasierako dinamizazioa
	5.1.L. BIR-JANTZI	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Zerbitzuaren garapena • Lortutako akordioak • Eskaintzen duten establezimendu kopurua • Egindako banaketa kopurua	ERTAINA	Espezializatutako enpresen laguntzarekin Udaletxearen bidez proiektuaren hasierako dinamizazioa
	5.3.L.- Dendak Gertu	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Zerbitzuaren garapena • Eskaintzen duten establezimendu kopurua • Egindako banaketa kopurua	ERTAINA	12.000€ Bideragarritasun eta partaideen definiziorako aurreko ikerketarako
	5.4.L.- Merkatari[2]	BERRIAK (L) eta Udaletxea (K)	• Zerbitzuaren garapena • Establezimendu kopurua • Transakzio kopurua	BAXUA/ERTAINA	Tamainaren arabera definitzeko

ARDATZA	EKINTZA	LIDERRA (L)-KOLABORATZAILEA (K)	ADIERAZLEA	DENBORA LEHENTASUNA	AURREKONTU ORIENTAZIOA
6. ARDATZA- GOBERNANTZA	**6.1.L.- Lidergotza publikoa**				
	Acción 6.1.1.- Creación de una Concejalía de Promoción Económica	Udaletxea (L)	• Zinegotzi sorrera	ALTUA	e.d.
	6.2.L.- Merkataritza eta Turismo Sailaren indartzea / Laguntza teknikoa				
	Acción 6.2.1.- Incorporación de una nueva persona/ asistencia técnica	Udaletxea (L)	• Jasotako laguntza	ALTUA	Dedikazioaren arabera
	6.3.L.- Ezinbesteko sektore lankidetza				
	Acción 6.3.1.- Mayor representatividad y que ofrece nuevos servicios adquiere relevancia.	BERRIAK (L) eta	• Zerbitzu kopurua • Partaide berri kopurua	ALTUA	Dedikazioaren arabera
	6.4.L.- MERKATARITZA MAHAIAREN berdefinitze eta berpizketa				
	Acción 6.4.1.- Redefinición de la Mesa de Comercio. **Acción 6.4.2.- Evolución y crecimiento de la Mesa de Comercio**	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Egindako deialdia • Partaide kopurua • Partaide berri kopurua • Bilera kopurua	ALTUA	e.d.
	6.5.L.- Merkataritza Behatokia				
	Acción 6.5.1.- Creación de un Cuadro de Mando **Acción 6.5.2.- Seguimiento del CM**	Udaletxea (L) eta BERRIAK (K)	• Adierazle kopurua • Txosten kopurua	ERTAINA/ALTUA	e.d.